

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



## EREÑOTZU LASTERKETA

### Izen-ematea bihar arte, iganderako

Igandean egingo da Ereñotzuko Mendi Lasterketa, 10:00etan hasita. Biharkoa da izena emateko azken eguna, [www.rock-the-sport.com](http://www.rock-the-sport.com) helbidean. ||

## HERNANI HERRIGUNEA

### Rosa Estela gaur, Txiapasko zapatistei buruz

Urumea Herri Gunean izango da gaur Rosa Estela Rodríguez, fray Bartolomé de las Casas, giza eskubideen aldeko erakundeko kidea. Txiapasko zapatisten altxamenduaz ariko da, euskal brigadisten ikuspuntutik, 19:00etan hasita. ||

## HERNANI GIBELALDE

### Lorezaintzan izena gaur, berriro

Gibelalde Lizeagako bizilagun elkarteak lorezaintza tailerra emateko asmoa azaldu du. Informazioa eskatu eta izena emateko azken eguna da gaur, 19:30etan bulegoan. ||

## HERNANI AGIPAN

### Ogi dastaketa eta sariak, bihar arte

Bihar arte sariak zozketatuko dira Agipan elkarteko okindrietan ogia erosten dutenen artean, eta gaur, gainera, ogi dastaketak eskainiko dira. ||

## HERNANI PSE-EE

### Azokan, kanpaina

Hauteskunde kanpainaren barruan, azokan izango dira gaur, 16:00etatik aurrera, PSE-EEko Ricardo Crespo, Rafaela Romero, Aritxu Maraño, Herma Gonzalez eta Guillermo Echenique. ||

## HERNANI EP

### Plaza Berrin EP-OHK, hautagaien aurkezpena

Elkarrekin Podemos-Orain Hernanik 18:30etan jarri du hitzordua gaur, Plaza Berrin, udal hauteskundeetarako hautagai zerrenda aurkeztu eta programaren berri emateko. ||

## HERNANI MIKEL GARAIZABAL ENOLOGO ETA SUMELLERRA

# «Sagardo mundura iraultza bat dator, eta jai honekin topiko asko apurtuko ditugu»

Uztaberri Eguna izango da larunbatean Atsegindegin, eta bertan sagardo desberdinak dastatu ahal izango dira arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara. Mikel Garaizabalek dastatze azkarrak emango ditu.

### SAGARDO munduan iraultza bat gertatzen ari dela diozu.

Gizartean gauzak asko aldatu dira azken urteetan eta sagardo mundua ez da atzean gelditu. Hiru urtean izandako aldaketa ikusgarria izan da eta datorrena haundiagoa izan da. Bertako sagarrarekin beste modu batean lanean hasi da sektorea eta horrek Euskal Sagardoan eta kalitatean ez ezik, dibertsifikazioan ere pauso haundi bat emateko bidea jarri du. Apustu haundia hasi da egiten bertako sagarrarekin. Bertako produktua zaindu eta kontsumitzea ezinbestekoa da. Orain dela 30 urte ardo munduaren iraultza izan zen, olio munduan etorri zen baita ere eta orain dela gutxi ikusi dugu garagardo munduaren iraultza. Sagardoaren garaia da eta iraultza hori gertatzen ari da.

### Eta nola gauzatzen da hori?

Nola? Lehenik eta behin bertako sagarrari garrantzia eman da. Horrek ingurua aberasten du, baina baita kalitatea bermatu ere. Inguruko baserriar eta

sagardogileek kontrolatzen dute sagarra, etxe ondoan dutelako. Hori ari da aldatzen sagardoaren kalitatea beste hainbat faktoreekin batean. Sagardo sektoreak ibilbide berri bat hasi du eta etorkizun haundia dauka.

### Sagardoa edozein mahaietarako moduko produktua dela esan izan duzu askotan.

Sagardoa edozein barra eta mahaietarako produktua izan litekeela erakutsi dugu. Edozein mahaitan eta edozein produktorekin ezkondu liteke. Sagardo mota desberdinak daude, sagar mota desberdinak daudelako eta geroz eta gehiago dibertsifikazio eta kalitatean lan egiten ari delako sektorea. Lan eta aukera guzti horiek ostalariari trasladatu behar dizkiogu orain, gure taberna, jatetxe eta elkarte gastronomikoei. Horregatik emango dugu larunbat goizean profesionali zuzendutako dastatze-hamaiketako. Eta dibertsifikazio hori haunditzea izango da etorkizuneko



Mikel Garaizabal enologo eta sumellerrak gidatuko du etziko dastaketa.

iraultza. Nola lan egin bertako barietateekin. 115 sagar mota klasifikatuta ditu Euskal Sagardoak eta hori izugarritzko altxorra da.

### Larunbateko egunari begiratu zer esango zenuke jendeari?

Etorri Atsegindegira larunbat arratsaldean eta probatu Euskal Sagardo desberdinak; asko harri-

tuko zarete Euskal Sagardoa zingilupean ze sagardo desberdinak dauden. Etorri eta Gozatu!

### Eta sagardoa kopan edatearen inguruan?

Bakoitzak edan dezala, nahi duen eran, baina sagardogilearen eta sagargilearen lana hobeto apreziatzeko dudarik gabe, sagardoa kopan. ||

## ASTIGARRAGA VIII. ILAR EGUNA

# Pintxo-potea eta saria gaur, Ilar Eguna hasteko

Gaur hasiko da VIII. Ilar Eguna, pintxo-potearekin; ilar pintxo onena 21:30etan sarituko da. Egun haundia, berriz, igandea izango da. Bertan ilar pintxoak dastatzeko baleak bihar arte oparituko dira.

ILARRA protagonista izango da gaur hasi eta igandera arte, Baratze elkarteak Udalaren babesarekin antolatuta, VIII. Ilar Eguna deitutako astean.

Hasteko, gaur pintxo-potea egingo da, eta 21:30etan ilar pintxo onena sarituko da. Bihar, berriz, eskolako ikasleek baratzak bisitatuko dituzte

09:00etan, eta etzi, 11:00etan, helduek, udaletxetik aterata.

Ilar egun haundia, berriz, igandea izango da, eta besteak beste, Luis Irizar eskolako su-

kaldariek egindako ilar pintxoak dastatu ahal izango dira. Horretarako, bihar arte lortu daitezke dendetan banatzen ari diren baleak. ||

**HERNANI bizitzaz bete!**

**26M UDAL HAUTESKUNDEAK**

**elkarrekin PODEMOS.**

**BOZKATU**  
Elkarrekin Podemos - Orain Hernani

equo ezker anitza

**AROZA TABERNA**

ETXEAN BERTAN EGINDAKO OTORDUAK

**ONGI ETORRI**

Calle Teñtalla 4 (barr. Hernani) 943829376

**HERNANI BAT EGINIK**

EUROPAN ERE

**eaj pnv**

EMAN BOTOA



**GAUR**

Aldaketa nabaritzen hasiko da. Tenperatura oraindik epela izango da, baina lainoak agertuko dira, eta arratsalderako dezentzen izango dira, eta zaparradak ere bota ditzake. Haizea iparrera aldatuko da.  
**Min.9° / Max.20°**

**BIHAR**

Asko jaitsiko da tenperatura, eta euria egingo du. Egunaren aurreneko partean zaparradak botako ditu tarteka, eta trumoi-ekaitzak ere jo dezake. Ipar-mendebaldeko haize biziak hotz sentsazioa haundituko du.  
**Min.9° / Max.15°**

(euskaletan)



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



## HERNANI ELKARGUNEA

# Elkarguneak bilera, kideak aurkezteko

Biterin jarri da hitzordua, 19:00etan, kideak aurkeztu eta webgunea sortzeaz eta azoka antolatzeaz hitz egiteko, besteak beste.

HERNANIKO eragile sozial, kultural eta sozioekonomikoak biltzen dituen taldea da Elkargunea. Otsailean egin zen elkarte sortzeko aurreneko bilera, eta gaurko, bigarren

bilera deitu dute. Biterin egingo da, arratsaldeko 19:00etan hasita.

Taldeko eragile bakoitzaren aurkezpena egin, eta segidan, hitz egingo da webgunea

egitearen eta azoka egitearen bueltan. Era berean, webgunea erabiltzeko tailerra edota wifia kolektibizazioa burutzeari buruzko proposamenak ere landuko dira. ||



Nafarroako Lakarren herrian dagoen Bodegas Lezaun bisitatu dute Portu auzoko bizilagunek.

## HERNANI PORTU AUZOA

### Bodegan izan ondoren, ardo dastaketa Portu auzoan

Maiatzaren 11n Lakarango Bodegas Lezaun bisitatzeko aukera izan zuten Portu auzoko bizilagunek, eta maiatzaren 24rako jarri dute hurrengo zita. Oraingoan, auzoko lokalean ardoak dastatzeko aukera izango dute, Guillermo Castaños enologoarekin. Parte hartzeko, Pedro Mari taberman eman behar da izena. ||

## JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak eskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

### Ikusi nahi ez duena baino itsuagorik ez

Nahikoa da Kaxkoan etxera iritsi nahi duten umeen ama edo aita izatea; hirugarren adinekoa izan eta etxetik atera edo bertara itzuli nahi izatea edo mugikortasun arazoak izatea; pilaketak ez gustatzea; zerbitzuetako udaltzaina izatea edo leiho irekiarekin lo egin nahi izatea, edo garbiketa makinak ikustea, konturatzeko Kaxkoan, txotx denboraldiko edozein larunbat gauean dagoen desordenaz.

Ez taberna batzuk, ez Berriak Ostalarien Elkarteak, ez

Kaxko Bizilagun Elkarteak, ez udaltzainen kolektiboak zuzendaria gidari dutela, ez gobernatzen gaituzten politikoei alkatea gidari dutela, ez dute kontuan Hernaniko Kaxkoko bizilagunoi egiten zaigun kaltea. Gainera, ez daukate arzoa konpontzeko inolako asmorik.

Zaraten neurketek, indarrean dagoen araudia betetzeko egindako eskaerak edota EAJ-PNVk, zaratak gutxitzeko 2018ko urrian aurkeztutako mozioak (EH Bilduko 9 ordezkariak kontrako botoa eman zuten eta ez ziren proposatu-

tako neurriak onartu), ez dute balio izan EH Bilduk arzoa ikusteko eta baztertu dituenak baino konponbide eraginkorrak aurkeztu ditzan.

Hernani horrelakoa da, egungo agintariei, Kaxkoko bizilagunen bizi-kalitatea gutxi axola dien horiei, horrela izatea gustatzen zaielako, eta horixe da agintaldia bukatuta uzten digutena. Ez da arzoa ikusi ezina, baizik eta ikusi nahi eza.

**Maria Ramos Hernandez eta Victor Jimenez Gonzalez**

## HERNANI GAZTE KONTSEILUA

### Balorazio bilera gaur, Gazte Kontseiluak

Bilera deitu du gaurko Gazte Kontseiluak, 18:00etan Biterin, orain arte egindakoaren balorazioa egin eta erronka berriak zehazteko. ||

## HERNANI GARIN TABERNA

### 'Napardeath' eta trilogia osoa, Garinen

Zine emanaldi berezia prestatu dute gaurko, Garin taberman, eta trukean borondatea besterik ez da eskatuko. Gaueko 21:00etan estreinatu berri den *Napardeath* pelikula ikusi ahal izango da, eta segidan, luntxa emango da. Horren ondoren, trilogia osatu duten *Ataun of the dead* eta *Joxean's hil eben* ere ikusi ahal izango dira. ||

## HERNANI XALAPARTA

### Gorrotxategiri omenaldia, ekainean

Xalaparta elkarteak ekainaren 15ean egingo du 38garren urteurreneko bazkaria, eta oraingoan, Aitor Gorrotxategi, 2018ko esku pelotako munduko txapeliduna omenduko da. Bazkaritarako izen-emate epea irekita egongo da ekainaren 9ra arte. Bestalde, mus txapelketa aurrera egiten ari da, eta hiru partida jokatu dira gaur: Gorrotxa II-Gorrotxa III/J-J; Ramon-Peli/Otegi-Bixente; Jesus-Arrieta/Jugi-Pablo; eta Koldo-Olatz/Ruiz-Ruiz. ||

## HERNANI OSIÑAGA

### Bertso afarirako, izen-ematea


Ekaineko aurreneko asteburuan ospatuko dira osiñagako festak, eta motorrak berotzeko, bertso afaria antolatu da maiatzaren 25erako. Hernaniko Bertso Eskolako Eñaut Martikorena, Iker Ormazabal *Tturko* eta Andoni Mugika *Anatx* ariko dira bertsoetan. Izena emateko azken eguna maiatzaren 20 izango da. Telefonoz deitu behar da 636 253 981 telefonora. Aferia 15 eurotan izango da. ||

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**X. URTEURRENA**  
**Edu Benitez Tamayo**

*Joan zinen  
gu hemen utzita  
baina, jakin ezazu,  
inoiz ez zaitugula ahaztuko.*



**ZURE FAMILIA**  
Hernanin, 2019ko maiatzaren 16an

## IRAGARKI MERKEAK

**Pisua salgai Hernaniko erdigunean;** 2 gela, sukaldia, sala eta komuna. Egoera onean.  
Deitu: 628 116 949

**Pisua salgai Larramendi kalean.** 85 m2, 3 logela, 2 komun eta trastelekua. 240.000 €. Deitu: 618 847 338

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

**euskal pintxo potea**  
Hernaniko tabernetan maiatzaren 13-tik 17-ra

Taberna parte hartzaileak eta pintxoak:

**APEADERO:** Gaztagardo  
**ARALAR:** Elurra  
**ARRI:** Aha  
**ATXUR:** Txapela  
**EKOS:** Taki-Taki  
**GARIN:** Piolin

euskal sagardoa + idiazabal gazta duen pintxoak **2€**

**GURIA:** Gaztagi  
**HARRESI:** Idiazalbardau  
**JOXE MARI:** Trufa de Idiazabal  
**KIXKAL:** Legazpi  
**OTAEGI:** Bizar Zuri  
**TRIPONTZI:** Artzai

**uztaberri eguna Hernanin**  
**Maiatzaren 18an, 18:00-21:00**  
Atsegindegin  
**2018ko Euskal Sagardoaren aurkezpena eta dastatzea.**